**BAKIOKO UDALERRIKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN EBALUAZIOA EGITEKO ERREFERENTZIAKO AGIRIA.**

**1.- Aurrekariak**

EAEko Ingurumenaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren I A) eranskinarekin bat etorriz (planen eta programen ingurumen ebaluazioaren prozedura arautu duen 211/2012 Dekretuak aldarazi zuen lege hori), ingurumen ebaluazioaren prozeduraren mendeko planen zerrenda ezarri zuena, eta era berean 211/2012 Dekretu horren 4. artikuluan ezarri denaren arabera, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak administrazio-prozedura honen mende jarriko dira.

2014ko azaroaren 4an, ingurumenaren arloko iraunkortasunaren txostenaren (IIT) irismena eta xehetasun maila zehaztuko dituen erreferentzia agiria egiteko beharrezkoak diren izapideak hasi zituen Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak. Horretarako, Bakioko Udalak Hasierako Agiria (HA) igorri zuen, 211/2012 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kimar Consultores Ambientales, S.L. enpresak eginikoa.

Interesdunek egokitzat jotzen zituzten oharrak egin ahal izan zitzaten, hasierako agiria argitara eman zen Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren webgunean. Izapide horren publizitatea egin zen, iragarkia argitaratuz bi egunkaritan.

2015eko urtarrilaren 2an, Bakioko Udalak erreferentziako agiria emateko epea eteteko eskatu zion Ingurumeneko Organo honi, baita

**DOCUMENTO DE REFERENCIA PARA LA EVALUACIÓN AMBIENTAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DEL MUNICIPIO DE BAKIO.**

**1.- Antecedentes**

De conformidad con el Anexo I A) de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, modificado por el Decreto 211/2012, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental de planes y programas, que establece la lista de planes sometidos al procedimiento de evaluación ambiental estratégica, y de acuerdo asimismo, con el Artículo 4 del citado Decreto 211/2012, serán sometidos a este procedimiento administrativo los Planes Generales de Ordenación Urbana.

Con fecha 4 de noviembre de 2014 se da inicio en esta Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia a los trámites necesarios para la emisión del Documento de Referencia (DR) que determine la amplitud y el nivel de detalle del Informe de Sostenibilidad Ambiental (ISA). Para ello el Ayuntamiento de Bakio remitió el Documento de Inicio (DI), según lo establecido en el Artículo 8 del Decreto 211/2012 elaborado por la empresa Kimar Consultores Ambientales, S.L.

Con objeto de que el público interesado pueda realizar las observaciones que estime convenientes se puso a disposición del mismo el Documento de Inicio mediante su publicación en la página web del Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia, dándose publicidad a este trámite mediante la publicación en dos diarios.

Con fecha 2 de enero de 2015 el Ayuntamiento de Bakio solicita a este Órgano Ambiental la suspensión del plazo para la

hasierako agiria itzultzeko ere, agiri hori berriz egiteko posibilitatearen aurrean.

emisión del Documento de Referencia así como la devolución del documento de inicio, ante la posibilidad de tener que reformular éste.

2015eko urtarrilaren 15ean, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honek erreferentziako agiria emateko epea eten egin zuen, Bakioko HAPOaren ingurumen ebaluazio estrategikorako, eta hasierako agiria igorri zion udalari.

Con fecha 15 de enero de 2015 esta Dirección General de Medio Ambiente procede a la suspensión del plazo de emisión del Documento de Referencia para la evaluación ambiental estratégica del PGOU de Bakio, remitiendo el Documento de Inicio al Ayuntamiento.

2015eko martxoaren 16ko idazkiarekin bidez, hauxe jakinarazi zion Bakioko Udalak Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honi: ez dela berriz egin hasierako agiria egin aurreikusita zegoen moduan eta, beraz, berriro igorri dio Ingurumeneko Organo honi, HAPO berriaren ingurumeneko izapidetzea burutzeko.

Mediante escrito de 16 de marzo de 2015 el Ayuntamiento de Bakio comunica a esta Dirección General de Medio Ambiente que no se ha llevado a cabo la reformulación prevista del Documento de Inicio de manera que lo vuelve a remitir a este Órgano Ambiental para que se lleve a cabo la tramitación ambiental del nuevo PGOU.

Aurkeztutako dokumentazioa, 211/2012 Dekretuan ezarritako kontsulta-izapidean jasotako erantzunak eta interesdunek aurkeztutako idazkiak aztertuta, eta Bakioko udalerrian bisitaldia eginda, erreferentziako agiri hau eman da. Hemen, ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenaren hedadura, xehetasun maila eta zehaztapen maila ezarri dira.

Una vez analizada la documentación aportada, el contenido de las respuestas recibidas durante el trámite de consultas establecido en el Decreto 211/2012 así como los escritos presentados por el público interesado y girada visita al municipio de Bakio, se emite el presente Documento de Referencia en el que se establece la amplitud, nivel de detalle y grado de especificación del informe de sostenibilidad ambiental.

Bakioko HAPOaren ingurumen iraunkortasunari buruzko txostena (IIT) planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautu duen 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoarekin bat etorriz egituratu beharko da. Hori gorabehera, azterlanak kontuan hartuko ditu alderdi hauek:

El contenido del ISA del PGOU de Bakio deberá estructurarse conforme a lo establecido en el Anexo II al Decreto 211/2012 por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas. Sin perjuicio de ello el estudio tendrá en cuenta los siguientes aspectos:

**2.- Aplikatu beharreko ingurumen irizpide estrategikoak, printzipioak eta iraunkortasun irizpideak.**

**2.- Objetivos ambientales estratégicos, principios y criterios de sostenibilidad aplicables.**

Bakioko HAPOaren ingurumen ebaluazio

Como referencia para la redacción y

estrategikoa egiteko eta idazteko, EAEko ingurumen ebaluazio estrategikoa araupetzeko 211/2012 Dekretuaren 2. artikuluan zerrendaturiko garapen iraunkorreko printzipioak hartu behar dira aintzat:

Oro har, HAPOak ingurumen irizpide hauei erantzun beharko die:

- Lurra modu eraginkorrean erabiltzea, hiri garapen sakabanatuak (orain dagoen hirigunetik urrunduak) ez egitea, lurralde eredu trinko eta konplexua sustatzea, mugikortasunaren beharra baretzen duena. Urbanizaziotik salbu uztea nekazaritzako balio handiko lurzorua eta lurzoru naturala. Adierazlea: artifizial bihurtzea aurreikusita dagoen landa egoerako lurzoruaren eremua eta garapen berrien eraikuntza-dentsitatea. Lurzoruaren "landa egoera" balioztatzeko, hauxe izan behar da aintzat: eraldatu ez den urbanizagarri gisa sailkaturiko lurzorua landa lurzoruko egoeran dagoela, Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bategina onetsi duen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuak (12.2. artikuluan hain zuzen) emandako definizioaren arabera:
    - *a) Edozelan ere, urbanizazioaren bidez eraldatua izatetik salbu uztea lurralde eta hirigintza antolamendua,*
    - *b) Urbanizaturiko lurzoru bihurtzea aurreikusten edo ahalbidetzen duen lurralde eta hirigintza antolamenduko tresnak dituen*

evaluación ambiental estratégica del PGOU de Bakio se deberán considerar los principios de desarrollo sostenible relacionados en el Artículo 2 del Decreto 211/2012 que regula la evaluación ambiental estratégica en la CAPV:

De manera general el PGOU deberá responder a los siguientes objetivos de carácter ambiental:

- Uso eficiente del suelo, evitar los desarrollos urbanísticos dispersos y alejados de la trama urbana consolidada, promover un modelo territorial compacto y complejo que limite la necesidad de movilidad. Preservar de la urbanización el suelo de alto valor agrológico y el suelo natural. Indicador: superficie de suelo en estado rural que se prevé artificializar y densidad edificatoria de los nuevos desarrollos. Para valorar la situación de "en estado rural" de un suelo ha de considerarse que el suelo calificado como urbanizable que no se ha transformado se encuentra en situación de suelo rural según la definición dada por el Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Suelo en su Artículo 12.2:
    - *a) En todo caso, el suelo preservado por la ordenación territorial y urbanística de su transformación mediante la urbanización,*
    - *b) El suelo para el que los instrumentos de ordenación territorial y urbanística prevean o permitan su paso a la situación de*

*lurzorua, harik eta urbanizazio-jarduketa bukatu arte, eta hurrengo idatz-zatian aipaturiko beharkizunak betetzen ez dituen beste edozein.*

*suelo urbanizado, hasta que termine la correspondiente actuación de urbanización, y cualquier otro que no reúna los requisitos a que se refiere el apartado siguiente.*

Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritzak kontsultak izapidetzean jakinarazitakoaren arabera, Nekazaritzako Lurzoruen Identifikazio Geografikorako Sistemaren (SIGPAC) erabilerako nekazaritzako lursailak dira Ohija eta Areaga sektore urbanizagarriak, gehienbat larreak, fruta-arbolak eta lur goldagarria.

Según informa la Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco, en el trámite de consultas, los suelos de los sectores urbanizables Ohija y Areaga son parcelas agrarias de uso SIGPAC, mayoritariamente de pastizales, frutales y tierra arable.

- Ingurunearen kalitatea, bizi inguru osasungarria: atsedenerako gunea sortzea, inguruko zaratak ongizatea ez kaltetzea lortzea. BI-2101, BI-3101 eta BI-3152 foru errepideen eta hiriko bide nagusien emisio akustikoaren eragina aintzat hartzea, bereziki hiriko zeharbidearen funtzioa betetzen duten BI-3101 eta BI-2101 errepideak lotzen dituztenak. Adierazleak: EAEko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuan definitutako kalitate akustikoko helburuen gainetik dauden soinuak pairatzen dituzten biztanleen kopurua, eta aurreikusitako garapen berrien ostean eragin hori jasoko luketen biztanle kopurua. Helburua: Bakioko biztanleria osoa inguruko zaratatik babestea etxetik kanpo eta, betiere, etxe barruan

- Calidad del medio, entorno vital saludable: obtener un espacio de disfrute, evitar la afección al bienestar por el ruido ambiental. Considerar la afección de la emisión acústica de las carreteras forales BI-2101, BI-3101 y BI-3152 y de los principales viales urbanos, en especial los que unen la BI-3101 y la BI-2101 que funcionan como travesía urbana. Indicadores: ámbitos urbanísticos y número de habitantes que están sometidos a niveles sonoros por encima de los Objetivos de Calidad Acústica definidos en el Decreto 213/2012 de contaminación acústica de la CAPV, número de habitantes que se verían sometidos tras la ejecución de los nuevos desarrollos previstos. Objetivo: toda la población de Bakio protegida contra el ruido ambiental en el exterior de las viviendas y en todo caso en el interior de las viviendas.

- Udalerriko ur masen egoera ekologiko

- Obtener el buen estado ecológico de las

ona lortzea: Estepona ibaian eta haren sare hidrologikoko ibilguetan eraginik ez izatea. lurpeko ur masen gaineko eragin nabarmenik ez izatea. Bakioko ingurunean eragin nabarmenik ez izatea Kantabria-Matxitxakoko itsas uretan. Hornidurarako bideratzen diren ur-guneak (iturburuak, zundaketak edo lurrazaleko hartuneak) babesteko perimetroak finkatzea. Adierazlea: lurrazaleko ur masen egoera ekologikoa eta lurpeko ur masen egoera kimikoa. Helburua: egoera ekologiko eta kimiko ona.

masas de agua del ámbito municipal: no afectar negativamente al río Estepona y a los cauces de su red hidrológica. No afección significativa a las masas de agua subterráneas. No afección significativa al entorno de Bakio de la masa de agua marina Cantabria-Matxitxako. Implementación de perímetros de protección de los puntos de agua destinados a abastecimiento (manantiales, sondeos o tomas superficiales). Indicador: estado ecológico de las masas de agua superficiales y estado químico de las masas de agua subterráneas. Objetivo: buen estado ecológico y químico.

- Biodibertsitatea eta paisaia: Hirigintzako antolamenduan aintzat hartu behar da babestu beharreko balio naturalistikoa eta paisajistikoa duten eremuak daudela, Natura 2000 sarearen barruko Gaztelugatxeko Biotopoaren eremutik harago. Nekazaritzako jarduerak antolatu behar dira, habitat horiek ez kaltetzeko eta, aldi berean, habitat horiek sustatu, interes komunitarioko eta balio paisajistiko handiko habitat erdi naturalen biziraupena bermatzen duten aldetik. Udal-mugarteko paisaiaren kalitatea zaintzea. Narriaturiko guneak lehengoratzea. Adierazlea: LAJen Babes Bereziko kategoriaren barruko eremua. Interes komunitarioko habitaten eremuaren bilakaera. Landazabaleko zonaldeen paisaiaren formen aniztasuna, basoko eremuen bilakaera, landaketen tipologia eta mahastien eremuaren bilakaera.

- Biodiversidad y Paisaje: consideración en la ordenación urbanística de la existencia de ámbitos con valores naturalísticos y paisajísticos que deben ser protegidos, más allá de la superficie del Biotopo Protegido de Gaztelugatxe integrado en la red Natura 2000. Ordenación de las actividades agrarias para no degradar tales hábitats y a su vez promoción de las mismas como garantizadoras de la pervivencia de hábitats seminaturales de interés comunitario y de elevado valor paisajístico. Preservación de la calidad paisajística del término municipal. Restauración de espacios degradados. Indicador: superficie incluida en la categoría de Especial Protección de las DOT. Evolución de la superficie de hábitats de interés comunitario. Diversidad de formas del paisaje en las zonas de campiña, evolución de la superficie forestal y tipología de

plantaciones, evolución de la superficie de cultivos de viña.

- Ingurumenaren gaineko arriskuak ahalik gehien gutxitzea: garapen berriek seguruak izan behar dute uholde arriskuen aurrean edo arrisku geoteknikoen aurrean. Bakioko hiri bilbearen zati handi bat Estepona ibaiak eta zenbait ibaiadarrek zeharkatzen dute. Ibai eta ibaiadar horiek ekar lezaketen uholde arriskua kontuan izan behar da hiri antolamendurako proposamenean. Finkaturiko hiriko eremuaren zati handi batean eta Estepona ibaiko bi ertzetako zona urbanizagarrietan uholdeak izateko probabilitate handikotzat jotzen da, ARPSI ES017-BIZ-BUT-04 gisa identifikatua.

- Minimizar riesgos ambientales: los nuevos desarrollos deben ser seguros frente a riesgos de inundación o riesgos geotécnicos. Una parte importante de la trama urbana de Bakio está atravesada por el río Estepona y varios afluentes cuyo riesgo asociado de inundabilidad debe considerarse en la propuesta de ordenación urbanística. Gran parte de la zona urbana consolidada y zonas urbanizables en ambas márgenes del río Estepona están sometidas a una probabilidad alta de inundación identificada como ARPSI ES017-BIZ-BUT-04.

Arestian aipatutako adierazleen datuak eman behar dira IITan, baita hasierako agiriaren V. Eranskinean identifikatutako europar adierazleen datuak ere, Bakioko errealitatera egokituta. Erreferentzia gisa, ikusgai daude Bizkaiko Iraunkortasun Adierazleen Sisteman ezarritako adierazleak helbide honetan: http://www.bizkaia21.net/atalak/Indicadores/BusTer_C.asp?tipo=MU&Id_Ter=012&Idioma=ca&idPagina=20

En el ISA se deberán aportar datos de los indicadores anteriormente relacionados así como de los indicadores europeos identificados en el Anexo V del Documento de Inicio, adaptados a la realidad de Bakio; los datos de los indicadores se deberán aportar lo más actualizados posible. Como referencia se pueden consultar los indicadores establecidos en el Sistema de Indicadores de Sostenibilidad de Bizkaia: http://www.bizkaia21.net/atalak/Indicadores/BusTer_C.asp?tipo=MU&Id_Ter=012&Idioma=ca&idPagina=20

Halaber, hiri plangintzarako, beren beregi, HAPOa egiteko oinarrizko printzipioak izan behar dira, gutxienez, honako artikulu hauetan ezarritakoak:

Asimismo y de manera específica para el planeamiento urbanístico deben ser principios inspiradores en la elaboración del PGOU, al menos, los establecidos en los siguientes artículos:

1) 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa: 3. artikulua. EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean bilduta dagoen eta

1) Artículo 3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. Atendiendo al principio de sostenibilidad en el uso del suelo, recogido en el Ley 2/2.006 del Suelo y

lurzoruaren erabileran aplikatzekoa den iraunkortasun printzipioaren arabera, eraikuntzako dentsitateak berrikusteko, egokitzapena behar deneko eremuen azaleraren murrizpena aztertu beharko litzateke; izan ere, halaxe dago jasota Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurrien ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 15.3. artikuluan.

2) Legegintzako 2/2008 Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onesten duena: 2. eta 10. artikuluak.

3) Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 10., 23., 25., 28., 30., 69. eta 83. artikuluak.

4) Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesteari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 2. artikulua.

5) 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, natura ondareari eta biodibertsitateari buruzkoa: 2. artikulua.

6) 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, urarena: 3. artikulua.

7) Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen 6. eta 13. artikuluak.

Igorritako hasierako agiriaren V. eranskinean, erreferentziako ingurumeneko helburuen zerrenda ematen da. Gainera, LAJen ingurumeneko helburuak aipatzen dira oro har, baita Mungiako LPP eta EAEko antolamendu sektorialeko beste tresna batzuk ere, hain zuzen ere antolamenduko proposamenak idaztean eta haien ingurumeneko ebaluazioan aintzat hartu beharrekoak.

**3.- Erreferentziako agiria egiteko kontuan**

Urbanismo de la CAPV, para la revisión de las densidades edificatorias debiera valorarse la reducción de la superficie de los ámbitos donde es necesaria tal adaptación, aspecto que se recoge en el Artículo 15.3 del Decreto de 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

2) Artículos 2 y 10 del Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Suelo.

3) Artículos 10, 23, 25, 28, 30, 69 y 83 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

4) Artículo 2 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

5) Artículo 2 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

6) Artículo 3 de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.

7) Artículos 6 y 13 de la Ley 37/2.003, de 17 de noviembre, del Ruido

En el Anexo V del Documento de Inicio remitido se hace una relación de objetivos ambientales de referencia. También hace referencia genérica a los objetivos ambientales de las DOT así como del PTP de Mungia y otros instrumentos de ordenación sectorial de la CAPV, que deben considerarse en la redacción de propuestas de ordenación y en la evaluación ambiental de las mismas.

**3.- Fuentes normativas y reglamentarias que**

**izan diren arau iturriak.**

Testu arauemaile hauek izan dira kontuan erreferentziako agiri hau egiteko:

- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteari buruzkoa.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikorako prozedura arautzen duena.
- 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basa-fauna eta -landaredia kontserbatzeari buruzkoa.
- 42/2007 Legea, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, EAEko natura babestekoa.
- 1/2010 Legea, martxoaren 11koa, Euskal Herriko natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea aldatzen duena.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoa.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Urari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
- 400/2013 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Kantauri Ekialdeko Mugape

**se han tenido en cuenta para elaborar el Documento de Referencia.**

Para elaborar el presente Documento de Referencia se han considerado los siguientes textos normativos:

- Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.
- Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.
- Directiva 92/43/CEE, de 21 de mayo de 1.992, relativa a la conservación de los hábitats naturales y la fauna y flora silvestres.
- Ley 42/2007, del Patrimonio Natural y la Biodiversidad.
- Ley 16/1994 de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.
- Ley 1/2010, de 11 de marzo, de modificación de la Ley 16/1994 de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.
- Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria.
- Real Decreto Legislativo 1/2001 de 20 de julio, por el que se aprueba el Texto refundido de la Ley de Aguas.
- Real Decreto 400/2013, de 7 de junio, por el que se aprueba el Plan

Hidrografikoaren Espainiako zatiaren plan hidrologikoa onetsi duena.

- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, urei buruzkoa.
- 2000/60/EE Zuzentaraua, urei buruzko politikaren arloan jardun esparru komunitarioa ezartzen duena.
- 2/2013 Legea, maiatzaren 29koa, itsasbazterraren babesari eta erabilera iraunkorrari buruzkoa, Kostaldearen uztailaren 28ko 22/1988 Legea aldatu duena.
- 876/2014 Errege Dekretua, Kostaldearen Arautegiari buruzkoa.
- 17/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko hots-kutsadurari buruzkoa.
- Irailaren 18ko 4523/2013 Foru Agindua, ukitutako udalei entzuteko izapidea ebazten duena eta Bizkaiko foru errepideetako zortasun akustikoko eremua behin betiko onesten duena.
- 5799/2013 Foru Agindua, azaroaren 28koa, Bizkaiko foru errepideen zarata-mapak jendaurrean erakusteko izapidea ebatzi eta mapa horiek behin betiko onesten dituena.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa,

Hidrológico de la parte española de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental.

- Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.
- Directiva 2000/60/CE, por la que se establece un marco comunitario en el ámbito de la política de aguas.
- Ley 2/2013, de 29 de mayo, de protección y uso sostenible del litoral y de modificación de la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas.
- Real Decreto 876/2014 del Reglamento de la Ley de Costas.
- Ley 17/2003, de 17 de noviembre del Ruido.
- Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica en la CAPV.
- Orden Foral 4523/2013, de 18 de septiembre, por la que se resuelve el trámite de audiencia a los Ayuntamientos afectados y se aprueba definitivamente la Zona de Servidumbre Acústica de las carreteras forales de Bizkaia.
- Orden Foral 5799/2013, de 28 de noviembre, por la que se resuelve el trámite de información pública y se aprueban definitivamente los Mapas de Ruido de las carreteras forales de Bizkaia.
- Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.

- 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.

- 1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa.

- 09/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko lurraldearen antolaketan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa.

- 112/2012 Errege Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena.

- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

- Gainera, espediente honetan aplikatu beharreko beste arau-testu batzuk izan behar ditu aintzat IITak.

**4. Ingurumen ebaluazioaren xedeko eremu geografikoa eta aukeren azterketa.**

Bakioko udal-mugarte osoak izan behar du ingurumen ebaluazioaren eremu geografikoa, baina aukeren azterketak zehatzago baloratu beharko ditu proposamenen eraginpeko eremuak.

Sustatzaileak aurkezturiko dokumentazioa eta kontsultak izapidetzean jasotako erantzunak aztertu ondoren, ondoko gogoeta

Urbanismo.

- Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Suelo.

- Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.

- Decreto 90/2014, de 3 de junio, sobre protección, gestión y ordenación del paisaje en la ordenación del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

- Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.

- Decreto 49/2009, de 24 de febrero, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y la ejecución de los rellenos.

- Además el ISA deberá considerar otros textos normativos que sean aplicables a este expediente.

**4. Ámbito geográfico objeto de evaluación ambiental y análisis de alternativas planteadas.**

El ámbito geográfico de la evaluación ambiental debe ser la totalidad del término municipal de Bakio, si bien el análisis de alternativas deberá valorar con mayor detalle los ámbitos afectados por las distintas propuestas.

Tras el análisis de la documentación aportada por el promotor, así como de las respuestas recibidas en el trámite de consultas, cabe

hauek egin daitezke plangintzaren helburuen eta sustatzaileak aurkezturiko aukeren inguruan, hori guztia planen eta programen ingurumeneko ebaluazio estrategikoaren prozedura araupetzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren I. Eranskinean xedatu denarekin bat.

realizar las siguientes consideraciones con respecto a los objetivos del planeamiento y a las alternativas aportadas por el promotor; todo ello conforme a lo dispuesto en el Anexo I al Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas:

Bakioko HAPO berrian, bizitegiko lurzoru urbanizagarriko sektoreei eta finkatu gabeko hiri lurzoruko aldeei eratxikitako eraikigarritasunean bereizten diren bi antolamendu-aukera planteatzen dira. Hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarri gisa sailkaturiko lurzoruaren eremu osoa berdina da bi aukeretan.

En el nuevo PGOU de Bakio, se plantean dos alternativas de ordenación que se diferencian en la edificabilidad que se atribuye a los diferentes sectores de suelo urbanizable residencial y áreas de suelo urbano no consolidado. La superficie total de suelo clasificado como urbano y urbanizable es la misma en ambas alternativas.

### *4.1. Eraginpeko eremuen ezaugarriak*

Ondoren, garatu gabeko lurzoru urbanizagarriko eremuak azalduko dira, non planteaturiko bi aukerak biltzen diren.

### *4.1. Características de los ámbitos afectados*

Se describen a continuación los ámbitos de suelo urbanizable no desarrollado que es dónde se centran las dos alternativas planteadas.

Areaga sektorea, 18,5 ha-koa, Bakioko hiri eremuaren hegoaldeko magaletan dago garatuta ekialdeko muturrean. Oro har, malda handiak ditu, beherako mailetan dauden zonaldeetan izan ezik; gaur egun zelaiek hartuta dago, baita harizti txikiekin eta arte sastrakekin ere, batez ere ereinotzez eta gurbitzez osaturikoekin. Bi errekak zeharkatuta dago: Luzarra errekak eta Ondarra errekak, eta oro har ibarreko landaredi txikia du. Nekazaritzako ahalmen handia du, baina maldak mugatua. Ingurunearen aldetik, kalitateko gunea da, hondartzatik hurbileneko zonalde urbanizatuaren atzeko aldea osatzen duen Kantauriko landazabal tipikoak hartuta; udalerriko hiri-bilbearen eta baso-eremuaren artean dago. Sektorean, tradiziozko zenbait baserri sakabanatu daude, baita zenbait etxebizitza moderno ere.

El sector Areaga, de 18,5 ha, se desarrolla en las laderas situadas al sur de la zona urbana de Bakio en su extremo este. Tiene, en general, pendientes elevadas, salvo las zonas situadas a cotas más bajas; está actualmente ocupado por prados con algunos bosquetes de robles y de setos de matorral alto de la serie de la encina, formados sobre todo por laureles y madroños. Está atravesado por dos arroyos, el arroyo Luzarraga y el arroyo Ondarra, con vegetación de ribera de escaso porte en general. La capacidad agrológica es elevada, si bien limitada por la pendiente. Paisajísticamente es un espacio de calidad ocupado por la típica campiña cantábrica que constituye el fondo escénico de la zona urbanizada más cercana a la playa, extendiéndose entre la trama urbana y la zona forestal del municipio. El sector está salpicado de algunos caseríos tradicionales y algunas viviendas modernas.

Ohija sektorea nabarmen murriztu da indarreko Arau Subsidiarioetan egun mugaturiko sektorearekiko. 3,75 ha hartzen ditu BI-3101 errepidearen ondoan, Bakioko hondartzaren ekialdeko magal batean, eta hondartzatik banatzeko, zerrenda txiki urbanizatu bat dago. Gaur egun, sega-belardiek hartuta dago, eta oso gertu dago San Esteban baselizatik. Zonalde hori Bakioko itsasoko aurrealdetik ikus daiteke. Inguruetan, katalogaturiko hegazti espezieen habien zonaldeak antzeman dira, Eusko Jaurlaritzaren Naturgunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak jakinarazitakoaren arabera.

El sector Ohija se ha reducido sustancialmente respecto al sector actualmente delimitado en las NNSS vigentes. Ocupa 3,75 ha junto a la carretera BI-3101, en una ladera sobre el extremo este de la playa de Bakio, separada de ésta por una pequeña franja urbanizada. Actualmente está ocupada por prados de siega y diente y se ubica muy cercana la ermita de San Esteban. La zona es visible desde el frente marítimo de Bakio. En sus cercanías se han identificado zonas de nidificación de especies de aves catalogadas, según informa la Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental del Gobierno Vasco.

Errenteria sektoreak egoera naturalean dagoen lurreko 12,1 ha hartzen du, urbanizazioak eraldatu gabekoa, eta gaur egun hauexek hartuta dago: baso misto atlantiko txiki batek, sastraka baxuek, larre atlantikoen eta fruta-arbolen zonaldeek, eta Kantauriko landazabalaren mosaiko tipikoa osatzen dute. Hiri-bilbearen alboko ekialdeko zonaldeak malda txikia du, mendebaldekoak eta hegoaldekoak ez bezala; izan ere, malda handia dute horiek. Sektorearen zati handi batek 10 urteko itzulera-aldia duen uholde arriskua du, baita Estepona ibaiko lehentasunezko fluxuzko zonalde txiki batean ere. Sektorearen zati handi bat “Metaketa zonalde” izendatuta dago Bakioko ARPSIren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren diagnostiko fitxan. Uraren Euskal Agentziak eginiko plana da.

El sector Errenteria supone la ocupación de 12,1 ha de suelo en estado natural, no transformado por la urbanización, actualmente ocupado por un bosquete de bosque mixto atlántico, matorral bajo, zonas de prados atlánticos y frutales, formando un mosaico típico de la campiña cantábrica. La zona este, colindante con la trama urbana es de baja pendiente, al contrario que la zona oeste y sur, de pendiente elevada. Gran parte del sector es inundable por avenidas con periodo de retorno de 10 años y en una pequeña zona por la Zona de Flujo Preferente del río Estepona. Gran parte del sector se identifica como “Zona de acumulación” en la ficha diagnóstico del Plan de Gestión del Riesgo de Inundación de la ARPSI Bakio elaborado por la Agencia Vasca del Agua.

Halaber, Areaga eta Ohija sektoreekin lotuta, gune libreen bi sistema orokor handiak planteatzen dira, hiri-bilbetik ekialdean kokaturiko magaletan zehar, hiri-bilbearen eta Gaztelugatxe BIL eta Biotopo Babestuaren eremuaren artean. Gainera, sega-belardiak, kostaldeko txilardiak eta baso-landaketak ere badira gune horretan. Proposaturiko Gune Libreen Sistema Orokorrek muga egiten dute Urdaibaiko

Asimismo asociadas a los sectores Areaga y Ohija se plantean dos sistemas generales de espacios libres de gran envergadura que se extienden por las laderas situadas al este de la trama urbana, entre ésta y el ámbito del Biotopo Protegido y ZEC Gaztelugatxe, extendiéndose por espacios ocupados por prados de siega y diente, brezales costeros y plantaciones forestales. Los SGEL propuestos llegan a colindar con la ZEPA ría de Urdaibai

itsasadarraren HBBZarekin, eta interes komunitarioko habitaten eremu zabalak (4040, 6210*, 6510) eta “Bakio” deritzon itsas paisaia katalogatuak hartuta dago.

ocupando amplias extensiones de hábitats de interés comunitario (4040, 6210*, 6510) y del paisaje marino catalogado denominado “Bakio”.

### *4.2. Aukeren deskribapena*

### *4.2. Descripción de las Alternativas*

Proposaturiko aukeren ardatza Ohija eta Areaga sektoreak dira soilik. Gainerako lurzoru urbanizagarria ez da jo egokitzat aukeren balorazioa egiteko. Errenteria sektorearen kasuan, sektore horrek badu dagoeneko onetsitako plan partziala, baina ez dago garatuta, eta aldaketa bat izapidetu da berriki. Lurzoru urbanizagarriko gainerako sektoreak dagoeneko garatuta daude nola edo hala: Bakea, Elexalde eta Solozarra: Bakioko bizitegirako lurzoruaren garapen handia ekarri dute azken 15 urtean.

Las Alternativas planteadas se centran únicamente en los sectores Ohija y Areaga. El resto del suelo urbanizable no se ha considerado susceptible de valoración de alternativas. En el caso del sector Errenteria éste cuenta ya con plan parcial aprobado pero no desarrollado, habiéndose tramitado una modificación recientemente. Los demás sectores de suelo urbanizable se han desarrollado ya en mayor o menor medida: Bakea, Elexalde y Solozarra que han supuesto un gran desarrollo del suelo residencial de Bakio en los últimos 15 años.

Areaga-1 eta Ohija Hegoa sektoreen bizitegirako lurzoru urbanizagarrian, hauexen artean daude aukerak: Areagan: 0,25 eta 0,55m$^2$/ m$^2$. Ohijan, berriz, 0,42 eta 0,68 m$^2$/m$^2$ artekoak. Gune libreen sistema orokor handiak ere proposatzen dira. 1 Aukeran, Ohija 19,80 ha-ko GLSO bat Ohija sektorearekin lotzen da, eta 2 Aukeran 21,80 ha-ko GLSO bat Areagarekin eta beste 27,51 GLSO bat Ohija sektorearekin. Ez da eman zonalde horietarako aurreikusitako erabileren gaineko informaziorik.

Para el caso del suelo urbanizable residencial de los sectores Areaga-1 y de Ohija Sur, las alternativas propuestas varían entre 0,25 y 0,55m$^2$/ m$^2$ en Areaga y entre 0,42 y 0,68 m$^2$/m$^2$ en Ohija. Se proponen también sistemas generales de espacios libres de grandes dimensiones. En la Alternativa 1 se vincula a Ohija un SGEL de 19,80 ha y en la Alternativa 2 se vincula un SGEL de 21,80 ha al sector Areaga y otro SGEL de 27,51 ha al sector Ohija. No se aporta información acerca de los usos previstos para estas zonas.

Eremu horiek handiak direnez gero, eraikigarritasunen diferentziek alde nabarmenak dakartzate ahalbideturiko etxebizitza kopuruan. Hala, 1. Aukerak 1212 etxebizitza berri emango lituzke, eta 2 Aukerak, berriz, 2001 etxebizitza berri. Hasierako Agirian ez da planarekin bete beharreko beharren gaineko berariazko informaziorik ematen (hasierako agiriaren V. eranskineko I.1. puntua, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen

Dada la elevada extensión de estos ámbitos las diferencias de edificabilidad suponen diferencias significativas en el número de viviendas que se posibilitan. Así la Alternativa 1 daría lugar a 1212 nuevas viviendas y la Alternativa 2 daría lugar a 2001 nuevas viviendas. En el Documento de Inicio no se aporta información específica de las necesidades a satisfacer con el plan (punto I.1 del Anexo V del documento de inicio en concordancia con el punto f del Artículo 8.1.A. del Decreto 211/2012 por el que se

211/2012 Dekretuaren 8.1.A. artikuluko f puntuarekin bat). HAPO EAEko Lurzoruaren eta Hirigintzan araudira egokitu beharra aipatzen da, *"egungo abagune sozialera, ekonomikora, kulturalera eta hirigintzara egokituriko plangintza-tresna emateko herriari"*. Ez da aurkeztu etxebizitza berrien beharrei buruzko azterketarik, udalerriko biztanleriaren inguruko balizko hazkundearen aurreikuspenak oinarri hartuta, EAEko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legearen 14.2. artikuluan ezarritakoaren arabera eta horren 3. artikuluarekin bat. Artikulu horretan, garapen iraunkorraren printzipioa aldarrikatzen da hiriaren plangintzan.

regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas). Se apunta a la necesidad de adaptación del PGOU a la normativa del Suelo y Urbanismo de la CAPV *"con la finalidad de dotar al municipio de un instrumento de planeamiento adaptado a la actual coyuntura social, económica, cultural y urbanística"*. No se aporta un análisis de la necesidad de nuevas viviendas en base a las previsiones de crecimiento poblacional del municipio según se establece en el Artículo 14.2. de la Ley del Suelo y urbanismo de la CAPV en concordancia con el Artículo 3 de esta Ley que proclama el principio de desarrollo sostenible en el planeamiento urbanístico.

Planteaturiko bi aukeren ondorioz, urbanizazioak landa-lurzoru eremu handiak hartzen jarraituko du, zeren eta, gaur egun, lurzoru urbanizagarritzat hartzen badira ere, ez baitaude eraldatuta eta, sailkatuta egon ez arren, izango lituzketen ingurumenaren gaineko balioei eusten baitie.

Las dos Alternativas planteadas suponen la continuación de la ocupación por la urbanización de elevadas superficies en situación de suelo rural ya que en la actualidad, aun cuando se encuentran clasificadas como suelo urbanizable, no se encuentran transformadas y mantienen los valores ambientales que hubiesen albergado aun cuando no estuviesen clasificados.

Aukerei dagokienez, honako hau aintzat hartzeko eskatzen du bere idazkian Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritza Nagusiak: *"benetan eskurik ez hartzeko aukera, hots, garatu ez diren lurzoruak sailkapenetik ateratzea proposatzen duen aukera izatea. Nolanahi ere, hiri garapenerako lurrik egokienei eutsiko die, malda txikiagoa oinarri hartuta aukeraturiko lurrei hain zuzen ere, baita hiri-bilbearen barrukoa izateko posibilitatearen arabera ere"*. Txostenak dioenez, 0 aukera *"ezinezkoa da"*, zeren eta ez baitzaio lotzen egun indarrean dagoen hirigintzaren legeriari. Era berean, Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritza Nagusiak ez du onargarritzat jotzen 2 Aukera, nabarmen gainditzen baititu LAJak berrikusteko

Respecto a las alternativas la Dirección General de Relaciones Municipales y Urbanismo solicita en su escrito que se considere *"una alternativa que realmente sea de no intervención, es decir, una alternativa que plantee la desclasificación de los suelos que no se han desarrollado, manteniendo, en todo caso, los suelos más adecuados para el desarrollo urbano, elegidos en base a su menor pendiente así como a la posibilidad de llegar a formar parte de la trama urbana"*. En el informe se afirma que la alternativa 0 *"no es posible"* puesto que no se ajusta a la legislación urbanística actualmente en vigor. Asimismo la Dirección General de Relaciones Municipales y Urbanismo no considera admisible la Alternativa 2 por superar con creces las previsiones de nueva vivienda

dokumentuan ezarritako etxebizitza berriaren aurreikuspenak; dokumentu hori hasieran dago onetsita, eta 780-1559 etxebizitza bitarteko kopurua jotzen du onargarritzat.

establecida en el documento de revisión de las DOT, que cuenta con aprobación inicial y que cuantifica la horquilla asumible en 780-1559 nuevas viviendas.

Jarduera ekonomikoei dagokienez, erabilera horretarako egun kalifikaturiko azalerei eusten zaie. Ez da horiek handitzea aurreikusten.

Respecto al suelo de actividades económicas se mantienen las superficies actualmente calificadas para este uso. No se prevé su ampliación.

### *4.3. Proposaturiko aukeren balorazioa*

### *4.3. Valoración de las alternativas propuestas*

Ingurumenaren aldetik baliozkoak diren eremuak hartzea dela eta, esan beharra dago udalerrian aurreikusitako lurzoru urbanizagarriak garatzeko proposamenek (Errenteria, Areaga eta Ohija sektoreak) 35 ha biltzen dituztela egoera naturalean. Izapidetzean planarekin batera aurkeztu beharreko Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena aztertu behar du ingurumeneko organo honek, eta txosten horren ondorioei kalterik egin gabe, hauxe esan behar da:

Respecto a la ocupación de ámbitos espaciales valiosos desde el punto de vista ambiental, es preciso señalar que las propuestas de desarrollo de los suelos urbanizables previstos en el municipio (sectores Errenteria, Areaga y Ohija) suman 35 has. de suelos en estado natural. Sin perjuicio de las conclusiones a las que llegue el Informe de Sostenibilidad Ambiental que debe acompañar al plan durante su tramitación y que deberá ser analizado por este órgano ambiental, es posible señalar que:

- Areaga sektorean, oso eragin nabarmena izango litzateke paisaian, baita lurzoru naturalean ere, larre eta sail atlantikoek hartutako bizkardun magalen ingurumen multzoaren baitan. Beraz, kalitatea galduko luke paisaiak, lurra artifizial bihurtu barik hartuko litzateke eta naturaren aldetik balio handia duten elementuak galduko lirateke, hala nola harizti eta ereinotz baso txikiak, baita nekazaritzako lurzoru nabarmena ere. SIGPAC erabilerako nekazaritzako lursailak dira sektoreko lursailak.

- En el sector Areaga resultarían afectados muy notablemente el paisaje, así como el suelo natural en el contexto de la unidad ambiental de las laderas alomadas ocupadas por prados y cultivos atlánticos. Se produce, pues, una pérdida de calidad paisajística, una ocupación de suelo no artificializado, una pérdida de elementos de valor naturalístico tales como bosquetes de robles y laurel y una pérdida de suelo agrario muy significativa. Las parcelas de este sector son parcelas agrarias con uso SIGPAC.

- Berdintsu gertatzen da Ohija

- Algo similar ocurre con el sector Ohija,

sektorearekin: nahiz eta Areaga sektorea baino txikiagoa izan, paisaiaren aldetik oso kalitate handia duen gune batean dago kokatua, itsasotik hurbil, Bakioko zonalde urbanizatuaren ekialdean dagoen kokapen topografiko garaian. Gune horren zati handi bat EAEko Paisaia Nabarmenen eta Berezien Katalogoko Itsas Paisaien Katalogoan dago sartuta. Etxebizitzek eta urbanizazioak gune hori hartuz gero, oso eragin nabarmena izango litzateke, dagoeneko eraikita dagoenaren metaketa-efektuaren ondorioz, zeren eta paisaiak kalitatea galduko bailuke Bakioko itsasoko aurrealde osotik oso nabaria den gune bat artifizial bihurtuta. Esan beharra dago, gainera, proposaturiko Ohija sektorearen zati bat itsaso-lurreko herri jabariaren babes-zortasunaren barruan dagoela kokatuta, non Kostei buruzko araudiak erabileren araubide murriztailea ezartzen baitu. Erabilera horien artean, galarazita daude eraikuntzako erabilerak, Kosten Arautegi Orokorra onetsi duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren 46. artikuluan xedatu duenaren arabera. Areaga sektorean legez, SIGPAC erabileraren barruan daude sektoreko lursailak.

que si bien es más pequeño que el sector Areaga, se ubica en un espacio de muy elevada calidad paisajística, cercano al mar, en una posición topográfica elevada sobre el extremo este de la zona urbanizada de Bakio. Una parte significativa de este espacio está incluida en el Catálogo de Paisajes Marinos del Catálogo de Paisajes Singulares y Sobresalientes de la CAPV. La ocupación de este espacio por viviendas y urbanización conllevaría una afección muy notable dado el efecto acumulativo con lo ya edificado, por la pérdida de calidad paisajística que supone artificializar un espacio muy visible desde todo el frente marítimo de Bakio. Es preciso señalar, además, que parte del propuesto sector Ohija se ubica dentro de la servidumbre de protección del dominio público marítimo terrestre, donde la normativa de Costas establece un régimen de usos restrictivo entre los que se prohíbe el desarrollo de usos edificatorios según determina el Artículo 46 del Real Decreto 876/2014, de 10 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de Costas. Al igual que en el sector Areaga las parcelas de este sector se incluyen en uso SIGPAC.

- Errenteria sektoreak, neurri handi batean, uholde arrisku handia du (T=10 urteko itzulera-aldiko uholdeak, gehienez 4 metroko kalatuekin ARPSI honen arriskuaren kartografiaren arabera), eta malda handia duten mendebaldeko magalak ere hartzen

- El sector Errenteria está sometido en gran medido a un elevado riesgo de inundación (avenida con periodo de retorno T=10 años con calados de hasta 4 metros según la cartografía de peligrosidad de esta ARPSI) abarcando también las laderas situadas al oeste, de

ditu. Sektorea garatzeak ukipen handia dakar berekin paisaian, desagertu egingo baitira zonaldeko landazabalak, naturaltasuna galtzen baita eta udaletxearen ingurua eta eskola ingurua artifizial bihurtzen baitira. Hartara, nekazaritzako kalitate handiko ibarreko lurrak hartuko dira uholde arrisku handiko eremuan.

Eraikigarritasunari dagokionez eta, ondorioz, plan berrian aurreikusitako etxebizitza kopuruari dagokionez, planak aurretik zehaztu egin beharko lituzke hazkunderako beharrak. Izan ere, lurzoru urbanizagarrian, 2/2006 Legearen 14. artikuluaren arabera: "*Udalerriko populazioaren hazkundearen gaineko aurreikuspenekiko zuzeneko proportzio egokia izan behar dute, 3. artikuluan ezarritako iraunkortasun printzipioarekin bat, betiere haren harrera-ahalmena aintzat hartuta".* Hortaz, hazkunderako aurreikuspen horiek zehaztuko dira eta, horren arabera, aurreikuspenoi erantzuna emateko lurzoruen beharrak eta okupaziorako aukerak zehaztuko dira.

Etxebizitza kopuruari dagokionez, ez Areaga sektoreak ez Ohija sektoreak ez dute antolamendu xehatua onetsita. Hori dela eta, lurzoruaren legeriak hirigintza-aprobetxamenduaren inguruan ezarritako gutxieneko estandarretara egokitu beharko dute, lurzoruaren erabilera iraunkorra izan dadin. Puntu honetan, Mungiako LPPean ezarritako ingurumen irizpideak aplikatu beharko dira gainera, eremu funtzional horretako udalerrietako etx/biztanleko aurreikuspena barne. Mungiako Eremu Funtzionalaren LPPean ezarritakoa gainditzen ez duen bizitegi kopurua proposatuko du planak.

Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako

elevada pendiente. El desarrollo del mismo supone también afecciones paisajísticas elevadas dado que las campiñas existentes en la zona desaparecerían, perdiendo naturalidad y artificializando el entorno del Ayuntamiento y la escuela, ocupando suelos de vega de elevada calidad agrológica y en un ámbito con riesgo elevado de inundación.

Respecto a la edificabilidad y consecuentemente al número de viviendas previstas en el nuevo plan, éste debería definir previamente cuáles son las necesidades de crecimiento, que en el caso del suelo urbanizable, según al art. 14 de la Ley 2/2006, deben "*Guardar, conforme al principio de sostenibilidad proclamado en el artículo 3, adecuada y directa proporción con las previsiones de crecimiento poblacional en el municipio, considerando su capacidad de acogida".* Por tanto, se definirán dichas previsiones de crecimiento y a partir de ahí se definirán las necesidades y las alternativas de ocupación de suelos para dar respuesta a dichas previsiones.

Respecto a la cuantificación de viviendas, ninguno de los sectores Areaga y Ohija tiene la ordenación pormenorizada aprobada, por lo que deberán adaptarse a los estándares mínimos de aprovechamiento urbanístico que determina la legislación del suelo, con objeto de hacer un uso sostenible del suelo. En este punto, se deberán además aplicar los criterios de carácter ambiental establecidos en el PTP de Mungia, incluyendo la previsión de viv/ha en los municipios que conforman dicha área funcional. El plan propondrá una cuantificación residencial que no supere la establecida en el PTP del A.F.de Mungia**.**

Atendiendo al informe de la Dirección

Zuzendaritza Nagusiaren txostenarekin bat etorriz, garatu gabeko lurzoruak sailkapenetik kendu eta neurrizko hazkundea aurreikusten duten aukerak planteatu behar dira. 2 aukera ez da bideragarria, LAJen Azterlanaren aurreikuspenak gainditzen dituelako. 0 aukera, indarreko plangintzarena, ez da bideragarria, ez duelako betetzen indarreko hirigintzaren legeria. Ingurumenaren aldetik ez dira onargarritzat jartzen indarreko arau subsidiarioetan Ohija ingururako aurreikusitako azalerak, zenbait aldagaitan izango litzatekeen ingurumen eraginagatik, paisaian edo biodibertsitatean adibidez.

Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak, gainera, kezka agertu du hirigintzako garapenek nekazaritza ustiategietan izan lezaketen eraginagatik, erabiltzen ari diren nekazaritzako lurrak desagerraraziko baitira.

Gogoeta horiek direla medio, ondorio hau eman behar du ingurumeneko organo honek:

- Ikusitako beharrak oinarri hartuta zuritu edo justifikatu behar dira hazkunderako aurreikuspenak, eta aurreko iruzkinen arabera ezarri behar dira.

- Lurra hartzeko aukerek, sustatzaileak aurkezturiko hasierako agirian planteatzen zuenez, ingurumen eragin arazodunak edo onartezinak izan ditzakete ingurumenaren aldetik eta, beraz, aldatu edo kendu egin behar dira. Ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Hirigintza Zuzendaritzak proposaturikoa hartu behar da aintzat Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenak bildu beharreko aukeren azterketan. Hirigintzako Zuzendaritza Nagusiak ezarritakoaren arabera, 2 aukera ez da

